formalki eratuko dutela adierazten duen konpromisoa ere erantsi beharko da. Era berean, aldi baterako enpresa-elkarteko kide bakoitzak egingo duen lana adieraziko dute proposamenean, bakoitzaren kaudimen-baldintzak egiaztatu eta zehazteko.	anteriores, y, asimismo, aportar el compromiso de constituirse formalmente en UTE en caso de resultar adjudicatarios. Igualmente, indicarán en la proposición la parte del objeto que cada miembro de la UTE realizaría, con el fin de determinar y comprobar los requisitos de solvencia de todos ellos.
g) Atzerriko enpresak badira, kontratuarekin zuzen edo zeharka zerikusia duten gorabehera guztietarako, Espainiako epaitegi edo auzitegien menpe jarriko direla adierazi beharko dute, eta, hala egokituz gero, lizitatzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzioari uko egingo lioketela.	g) Para las empresas extranjeras, declaración de someterse a la jurisdicción de los Juzgados y Tribunales españoles de cualquier orden, para todas las incidencias que de modo directo o indirecto pudieran surgir del contrato, con renuncia, en su caso, al fuero jurisdiccional extranjero que pudiera corresponder al licitante.
h) Helbide elektronikoa jakinarazpen eta errekerimenduak egiteko, argibideak edo dokumentazio osagarria eskatzeko eta konpon daitezkeen akatsen berri emateko.	h) Dirección de correo electrónico para efectuar las notificaciones, requerimientos o solicitudes de aclaraciones, documentación complementaria y/o la comunicación de existencia de vicios subsanables.
b), c), d) eta e) letretan adierazitako zirkunstantziak (titulazio eta euskara maila eskakizunari dagokien agiriak izan ezik; hauek nahitaez aurkeztu beharko ditu) honela egiaztatu ahal izango dira: Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen Erregistro Ofizialeko ziurtagiri bidez; Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Estatuko Erregistro Ofizialeko ziurtagiri bidez; edo Europako erkidegoko sailkapeneko ziurtagiri bidez, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen ezarritakoarekin bat etorriz. Kasu horretan, ziurtagiriarekin batera lizitatzailearen zinpeko aitorpena aurkeztu beharko da, azaltzen duena ziurtagiri horretan adierazitako zirkunstantziek ez dutela inolako aldaketarik izan.	*Las circunstancias señaladas en las anteriores letras b), c), d) y e) (salvo la documentación referida a titulaciones y perfil de euskera que habrán de aportar obligatoriamente) podrán acreditarse mediante una certificación del Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas de la Comunidad Autónoma Vasca, del Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Estado o mediante un certificado comunitario de clasificación conforme a lo establecido en la LCSP En este caso, deberá acompañarse a la referida certificación una declaración responsable de la persona licitador en la que manifieste que las circunstancias reflejadas en el correspondiente certificado no han experimentado variación.*
Kontratista enpresa sortu berria bada, hau da, bost urtetik beherako antzinatasuna badu, SPKLren 90.1 artikuluko b) letratik i) letrara bitartean aipatzen diren bideetako bat edo batzuk erabiliz egiaztatuko da kaudimen teknikoa.	Cuando la contratista sea una empresa de nueva creación, entendiendo por tal aquella que tenga una antigüedad inferior a cinco años, la solvencia técnica se acreditará por uno o varios de los medios a que se refieren las letras b) a i) del artículo 90.1 de la LCSP.

16. KONTRATUA FORMALIZATZEA Lizitazioaren baldintzetara zehatz-mehatz egokitzen den agiri administratiboan formalizatu behar da kontratua, SPKLak 153 artikuluan xedatu bezala; horretarako Udalaren aurrean aurkeztu behar da. SPKLren 44.1 artikuluaren arabera kontratazio arloan errekurtso berezia izan dezakeen kontratua denez, ezin izango da formalizatu harik eta hamabost egun balioduneko epea igaro arte, lizitatzaileei eta hautagaiei adjudikazioaren berri emateko jakinarazpena igortzen zaienetik, eta, epe horretan, errekurtso hori jarri ahal izango dute. Errekurtsoa jarriz gero, kontratazio-prozeduraren izapidetzea eten egingo da errekurtsoa ebatzi arte; SPKLren 44. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoari jarraituz bideratuko da errekurtsoa. Hamabost eguneko epe horretan errekurtsorik jarri ez bada, adjudikaziodunari eskatuko zaio kontratua formaliza dezala gehienez ere bost eguneko epean, horretarako errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera.	**16. FORMALIZACIÓN DEL CONTRATO** El contrato se formalizará conforme a lo previsto en el artículo 153 de la LCSP en documento administrativo que se ajuste con exactitud a las condiciones de la licitación, debiendo comparecer en el Ayuntamiento para ello. Tratándose de un contrato susceptible del recurso especial en materia de contratación conforme al artículo 44.1 de la LCSP, la formalización no podrá efectuarse antes de que transcurran quince días hábiles desde que se remita la notificación de la adjudicación a las licitadoras y candidatos/as, plazo durante el cual puede interponerse el citado recurso, en cuyo caso se suspenderá la tramitación del procedimiento de contratación hasta la resolución del recurso, que se desarrollará según lo previsto en el artículo 44 y siguientes de la citada Ley. Transcurridos los quince días señalados sin que se interponga recurso alguno, se requerirá a la adjudicataria para que formalice el contrato en un plazo no superior a cinco días naturales a contar desde el siguiente a aquel en que hubiera recibido el requerimiento.
III. KONTRATUA GAUZATZEA **17. KONTRATUAREN ARDURADUNA** Orioko Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Departamentuko arduraduna izango da kontratu hau gauzatzearen arduraduna, SPKLren 62. artikuluan xedatutakoaren arabera.	**III. EJECUCIÓN DEL CONTRATO** **17. RESPONSABLE DEL CONTRATO** En el presente contrato**,** según el artículo 62 de la LCSP se designa como responsable del contrato a la responsable del departamento de Servicios Sociales del Ayuntamiento de Orio.
18. KONTRATUA GAUZATZEA Enpresa adjudikaziodunaren gain eta kontura beteko da kontratua, SPKLaren 197. artikuluan xedatutakoaren arabera.	**18. EJECUCIÓN DEL CONTRATO** La ejecución del contrato se realizará a riesgo y ventura de la empresa adjudicataria, con arreglo al artículo 197 de la LCSP.

Kontratua gauzatzeko, plegu honetan jasotako klausulak eta espedienteari erantsitako zehaztapen teknikoak jarraituko dira, eta betiere, Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolpean. Administrazioak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek. Enpresa adjudikaziodunari edo bere mendeko pertsonei leporatu ahal zaizkien ekintzengatik edo omisioengatik kontratuaren martxa ona arriskuan jartzen denean, Administrazioak kontratuaren martxa ona lortzeko edo berreskuratzeko beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartzea agindu dezake. Kontratista berari egoztekoak diren arrazoiak direla-eta, epea bere osotasunean betetzerakoan berandutzen bada, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera uztea edo SPKLren 192 eta 193. artikuluek aurreikusitako zigorrak jartzea.	El contrato se ejecutará con sujeción a las cláusulas contenidas en el presente pliego y a las especificaciones técnicas unidas al expediente, bajo la dirección, inspección y control de la Administración, quien ejercerá estas facultades tanto por escrito como verbalmente. Cuando por actos u omisiones imputables a la empresa adjudicataria o a personas de ella dependientes se comprometa la buena marcha del contrato, la Administración podrá exigir la adopción de las medidas que estime necesarias para conseguir o restablecer el buen orden en la ejecución del mismo. Cuando la empresa contratista, por causas imputables al mismo, hubiera incurrido en demora respecto al cumplimiento del plazo total, la Administración podrá optar indistintamente por la resolución del contrato o por la imposición de las penalidades previstas en los artículos 192 y 193 de la LCSP.
19. KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK **19.1. Hizkuntza arloan.** Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza-ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarria eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta hori garatzen duten arauetan erregulatua. Arau horien artean daude, besteak beste, Orioko Udalean eta udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko udal-ordenantza eta erabilera-planaren baitan Orioko Udalak onartutako hizkuntza-irizpideak. 9/2024 DEKRETUA, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzekoa arautzen duenak, 13. 1. b)	**19. CONDICIONES ESPECIALES DE EJECUCIÓN** **19.1 Materia lingüística.** Este contrato se halla sujeto al régimen de doble oficialidad lingüística establecido por el Estatuto de Autonomía del País Vasco en su artículo 6° y regulado por la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del euskera, y por la normativa que la desarrolla, entre las que están la ordenanza municipal para la normalización del uso del euskera y los criterios lingüísticos aprobados por el Ayuntamiento de Orio en el marco del plan de uso del euskera. El DECRETO 9/2024, de 22 de febrero, por el que se regula el uso del euskera en el Sector Público Vasco, en el artículo 13 1. b) se especifica que e*n el caso de que el procedimiento de contratación tenga*

artikuluan, zehazten da: k*ontratazio-prozeduraren objektua baldin bada herritarrei zuzendutako prestazio bat edo hura gauzatzean herritarrekin harreman zuzena ezartzen bada, herritarrek aukeratzen duten hizkuntza ofizialean emango zaie arreta, eta, gainera, herritar hartzaileen hizkuntza-eskubideak bermatzeko moduko baldintzetan emango da prestazioa.* Enpresa adjudikaziodunak Udalaren hizkuntz araudiaren arabera jokatuko du, kontratuaren xede diren jarduera guztietan; era berean, enpresak Udalarekin dituen ahozko zein idatzizko harreman guztiak administrazioaren lan-hizkuntzan izango dira; hau da, euskaraz. Kontratuaren xede den prestazioaren berezko ezaugarriak direla-eta, zerbitzua emango duten enpresa adjudikazioduneko langileek Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun-maila izan beharko dute. Baldintza hori berdin aplikatuko zaie zerbitzurako egiten diren lan-kontratu berri guztiei. Hizkuntza-baldintzen betetze-mailaren jarraipena: Sektore Publikoko Kontratuen Legeari (SPKLT) jarraiki: – Kontratuaren arduradunak kontratua nola betetzen den ikuskatuko du, hizkuntza-baldintzak behar bezala betetzen diren jarraipena egin, eta horren inguruan beharrezko erabakiak hartu eta jarraibideak emango ditu. – Ikuskaritza kontratu bukaeran ez ezik, modu jarraian ere egingo du kontratu-arduradunak, berariaz prestatutako jarraipen-euskarriak erabilita, sor daitezkeen hutsegiteak zuzendu ahal izateko. Klausula honetan aurreikusitako baldintzek kontratuaren funtsezko obligazio izaera daukate Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen	*por objeto una prestación dirigida o en cuya ejecución se establezca una relación directa con la ciudadanía, los ciudadanos y ciudadanas serán atendidos en la lengua oficial que elijan y, además, la prestación se ejecutará en condiciones que garanticen los derechos lingüísticos de los/las ciudadanos y ciudadanas destinatarias de la misma..* La empresa adjudicataria actuará de conformidad con las normas lingüísticas del Ayuntamiento en todos los cometidos objeto del contrato. Asimismo, todas las relaciones tanto verbales como escritas de la empresa con la administración serán en la lengua de trabajo de ésta última; es decir, en euskara. Las características específicas de la prestación objeto del contrato obligan a que el personal adscrito al servicio deberá estar en posesión del nivel de competencia C1 del Marco Europeo de Referencia. Dicha condición será aplicable también a las nuevas contrataciones que pudieran realizarse para la prestación del servicio. Seguimiento del grado de cumplimiento de los requerimientos lingüísticos: De conformidad con la Ley de Contratos del Sector Público: – El/la responsable del contrato inspeccionará el cumplimiento del contrato, hará seguimiento de la correcta observancia de los requerimientos lingüísticos, y adoptará las decisiones y dictará las instrucciones necesarias a tal fin. – El/la responsable del contrato realizará la inspección no solo a su finalización, sino de modo continuado, mediante soportes de seguimiento específicos, que permitan corregir los errores que se detecten.

ondorioetarako, eta hortaz, kontratuaren gainerako baldintzak ez betetzeak dituen ondorio berdinak izango ditu: zigor sistema aplikatzea edo kontratua suntsiaraztea, aipatutako legearen 313 artikuluan xedatutakoaren arabera.	Los requerimientos lingüísticos que se recogen en los siguientes pliegos de condiciones constituyen una obligación esencial del contrato a los efectos de la Ley de Contratos del Sector Público, y su incumplimiento puede motivar la resolución del mismo, de conformidad con el artículo 313 de la citada ley.
19.2. Enpresa adjudikaziodunaren lan eskubideak eta betebeharrak. 1. Kontratuak derrigorrez bete beharko ditu lan- arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan indarrean dauden eta aplikagarri diren legezko, arauzko eta hitzarmenezko xedapenak. Kontratua indarrean den bitartean, kontratuaren hasierako plantillan aldaketak gertatzen badira (bai erretiro, heriotza, borondatezko baja, kaleratze, aldi baterako ezintasun, ezintasun iraunkor eta abarrengatik, bai zerbitzuaren beharrengatik), baja hori bete aurretik adjudikaziodunak Udalari horren berri emango dio. Adjudikaziodunaren ardura osoa izango da bere zerbitzuan izango dituen langileen kontratazioa eta horien prestakuntza. Orioko Udalak ez du inongo harreman juridikorik izango adjudikaziodunarentzat lanean diharduten langileekin, ez agiri hauen xede den kontratua indarrean den bitartean ez kontratua bukatu ondoren ere. 2. Adjudikazioduna behartuta egongo da kontratua egikarituko duen plantillari Esku Hartze Sozialari Buruzko Gipuzkoako IV Lan Hitzarmen Kolektiboan ezarritako baldintzak aplikatzera.	**19.2. Derechos y obligaciones laborales de la empresa adjudicataria.** 1. El presente contrato se halla sujeto al cumplimiento de las disposiciones legales, reglamentarais y convencionales vigentes y que resulten de aplicación en materia laboral, de Seguridad Social y de seguridad y salud en el trabajo. Durante la vigencia del contrato y siempre que se produzca una variación en la plantilla con que se inicia el mismo, bien sea por jubilación, defunción, baja voluntaria, despido, invalidez, etc. o cualquier otra que se produzca por necesidades del servicio la empresa adjudicataria está obligada a dar cuenta al Ayuntamiento previamente a cubrir la baja causada. Será de cuenta y cargo de la empresa adjudicataria exclusivamente la contratación del personal a su servicio y su formación. El Ayuntamiento de Orio no tendrá relación jurídica alguna con el personal al servicio de la adjudicataria durante el plazo de vigencia del contrato objeto de este pliego ni al término del mismo. 2. La adjudicataria estará obligada a aplicar a la plantilla que ejecutará el contrato las condiciones establecidas en el IV Convenio Colectivo de Intervención Social de Gipuzkoa. Asimismo, estarán obligados a facilitar cuanta información se requiera sobre las condiciones de trabajo que, una vez

Halaber, behin kontratua adjudikatu eta gero langileei benetan aplikatuko zaizkien lan baldintzei buruz eskatzen zaien informazio guztia ematera behartuta egongo dira. 3. Hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaindu beharko du enpresa adjudikaziodunak kontratua gauzatzen den denbora guztian, beti ere langileari dagokion lanbide-kategoriaren arabera, eta ordaintzekoa den soldata ezin izango da, inola ere, txikiagoa izan. 4. Klausula honetako baldintzak kontratuaren funtsezko betebeharrak dira, SPKLren ondorioetarako. Hortaz, baldintzak betetzen ez badira, kontratua bertan behera gelditu ahal izango da, lege horren 221.f) artikuluaren arabera.	adjudicado el contrato, se apliquen efectivamente a las personas trabajadoras. 3. La empresa adjudicataria deberá a lo largo de toda la ejecución del contrato, abonar el salario recogido en el convenio colectivo de aplicación según la categoría profesional que le corresponda a la persona trabajadora, sin que en ningún caso el salario a abonar pueda ser inferior a aquel 4. Los requisitos de esta cláusula constituyen obligaciones esenciales del contrato a los efectos de la LCSP, y su incumplimiento puede motivar la resolución del mismo, de conformidad con el artículo 211. f) de la citada ley.
19.3. Berdintasuna. Emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatzeko eskubide eta betebeharrak 1) Enpresa adjudikaziodunak nahitaez beteko ditu honako hauek: 3/2007 Lege Organikoa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirakoa; 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa; eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Orioko Udal Ordenantza. 2) Enpresa adjudikaziodunak komunikazio ez- sexista eta inklusiboa egingo du bere dokumentazioan, publizitatean, irudietan eta materialetan. 3) Beste neurri batzuk hartzeari utzi gabe eta berdintasun arloan indarrean dagoen legeriari jarraiki, kontratuaren adjudikaziodun gisa izendatutako pertsona juridikoak, bere estatus juridikoa edozein izanda ere, derrigorrez	**19.3 Igualdad. Derechos y obligaciones para garantizar la igualdad de mujeres y hombres** 1) La empresa adjudicataria deberá cumplir los principios establecidos en la Ley Orgánica 3/2007 para la Igualdad Efectiva de Mujeres y Hombres, la Ley 4/2005 para la Igualdad de Mujeres y Hombres y la Ordenanza Municipal de Orio para la Igualdad de Mujeres y Hombres. 2) La empresa adjudicataria hará un uso de la comunicación de manera no sexista e inclusiva en toda la documentación, publicidad, imagen o materiales. 3) Sin perjuicio de otras medidas y en virtud de la legislación vigente en materia de igualdad, la persona jurídica designada como adjudicataria del contrato, independientemente de su estatus jurídico, deberá garantizar obligatoriamente la igualdad entre mujeres y hombres, prestando especial

bermatu beharko du emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, eta arreta berezia jarriko du soldata-diskriminazioan. 4) Zerbitzua garatu behar duen talde lizitatzaileko pertsona guztiek emakumeekiko eta gizonekiko errespetuzko eta berdintasunezko tratua edukiko dute une oro, eta ez dute jarrera gogaikarri, iraingarri edo diskriminatzailerik hartuko sexu, ideologia, jatorri etniko, nazionalitate edo orientazio sexualagatik. 5) Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako 3/2007 Lege Organikoaren eta Enplegu eta lanaren arloan emakumeen eta gizonen arteko tratu-eta aukera-berdintasuna bermatzeko presako neurrien martxoaren 1eko 6/2019 Errege Lege Dekretuaren arabera: ▪ Enpresak 50 langile baino gehiago baldin baditu, Berdintasun Plana aurkeztu beharko du. Urriaren 13ko 901/2020 Errege Dekretuaren arabera (berdintasun-planak eta haien erregistroa arautzen dituena eta laneko hitzarmen eta akordio kolektiboen erregistro eta gordailuari buruzko maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretua aldatzen duena), berdintasun plana egin beharra dakarren pertsona-kopurua kalkulatzeko, enpresaren plantilla osoa hartuko da kontuan, edozein izanda ere haren lan- zentroak eta edozein izanda ere lan- kontratazioaren modalitatea; alegia, pertsona hauek ere kontuan hartuko dira: bai aldizkako lan-kontratu finkoak dituzten pertsonak, bai iraupen jakineko kontratuak	atención a la discriminación salarial. 4) Todas las personas de la empresa que vayan a desarrollar el servicio, deberán mantener en todo momento una actitud respetuosa e igualitaria hacia mujeres y hombres, y no adoptarán ninguna actitud que pueda ser molesta, ofensiva o discriminatoria tanto por razón de sexo, ideología, origen étnico, nacionalidad u orientación sexual. 5) De conformidad con la Ley Orgánica 3/2007 para la igualdad efectiva de mujeres y hombres y el Real Decreto-ley 6/2019 de 1 de marzo, de medidas urgentes para garantía de la igualdad de trato y de oportunidades entre mujeres y hombres en el empleo y la ocupación: ▪ Si la empresa tiene más de 50 personas empleadas, deberá presentar el Plan de Igualdad de la empresa. De conformidad con el Real Decreto 901/2020, de 13 de octubre, por el que se regulan los planes de igualdad y su registro y se modifica el Real Decreto 713/2010, de 28 de mayo, sobre registro y depósito de convenios y acuerdos colectivos de trabajo, para el cálculo del número de personas que dan lugar a la obligación de elaborar un plan de igualdad, se tendrá en cuenta la plantilla total de la empresa, cualquiera que sea el número de centros de trabajo de aquella y cualquiera que sea la forma de contratación laboral, incluidas las personas con contratos fijos discontinuos, con contratos de duración determinada y personas con contratos de puesta a disposición. 6) Se utilizarán datos desagregados por sexo en cuanto éstos se refieran a personas en

dituzten pertsonak eta bai langileak lagatzeko kontratuak dituzten pertsonak. 6) Sexuaren arabera bereizitako datuak erabiliko dira, pertsonei buruzkoak direnean, kontratua gauzatu bitartean egiten eta entregatzen den dokumentazio guztian. Era berean, generoaren ikuspegia kontuan izango da kontratua egikaritzean sortzen diren txosten, idatzi, datu bilketa, estatistika eta abarretan. 7) Neurriak hartuko dira sexu jazarpena eta sexu ondoriozko laneko jazarpena saihesteko eta gertatzen den kasuetarako esku hartzeko protokolo bat zehaztuta egongo da aurretiaz, hori enpresa adjudikaziodunak aurkeztuko du. 8) Klausula honetako baldintzak kontratuaren funtsezko betebeharrak dira, Kontratuen Legearen ondorioetarako. Hortaz, baldintzok betetzen ez badira, kontratua bukatu daiteke, lege horren 211.f) artikuluaren arabera.	toda la documentación que se elabore y entregue durante la ejecución del contrato. Asimismo, se incorporará la perspectiva de género en los informes, escritos, recogida de datos, estadísticas, etc. que se generen durante la ejecución del contrato. 7) Se adoptarán medidas para evitar el acoso sexual y el acoso laboral por razón de sexo y en caso de que se produzca, existirá un protocolo de intervención previamente definido, que será presentado por la empresa adjudicataria. Los requisitos de esta cláusula constituyen obligaciones esenciales del contrato a los efectos de la LCSP, y su incumplimiento puede motivar la resolución del mismo, de conformidad con el artículo 211. f) de la citada ley.
19.4 Datu pertsonalen babesa Kontratazio honek datu pertsonalak eskuratzea badakar, kontratistak SPKLren hogeita bosgarren xedapen gehigarritik eratorritako betebeharrak bete beharko ditu, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoarekin eta hura garatzeko araudiarekin lotuta. a) **Datu pertsonalen tratamendua**. Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko, 9/2017 Legearen 25. xedapen gehigarriaren arabera (lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako	**19.4 Protección de datos de carácter personal** En el caso de que la presente contratación implique el acceso a datos de carácter personal, la contratista deberá cumplir las obligaciones derivadas de la Disposición Adicional Vigésima Quinta de la LCSP, en relación con la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, y su normativa de desarrollo. **a) Tratamiento de datos personales.** De acuerdo con la disposición adicional 25 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE

ordenamendu juridikora), pertsona fisikoen datu pertsonalen tratamendua dakarten kontratuek osorik errespetatu beharko dute Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubideak Bermatzeari buruzkoa. Esleipenak berekin badakar erakunde esleipendunak Orioko Udalaren ardurapeko datu pertsonalak eskuratzea, hura Tratamenduaren Eragilearen izaera izango du. Kasu horretan, datu horietarako sarbidea ez da datuen komunikaziotzat hartuko, DBEOren 28. artikuluan aurreikusitakoa bete ezkero. Edonola ere, idatziz jaso beharko dira haren aurreikuspenak. Kontratu prestazioa amaitzen denean, datu pertsonalak suntsitu edo itzuli beharko dira, bai erakunde kontratatzaile arduradunari edo hark izendatutako beste Tratamendu Eragileari bati. Tratamenduaren Eragileak datuak behar bezala blokeatuta gordeko ditu, tratamenduaren ardura duen erakundearekin duen harremanetik erantzukizunak erator badaitezke. Halaber, hirugarren batek datu pertsonalak kontratistaren, Tratamendu Eragilearen, kontura tratatzen baditu, baldintza hauek bete beharko dira: a) Tratamendu hori erakunde kontratatzaileak eta kontratistak sinatutako kontratuan zehaztuta egotea. b) Datu pertsonalen tratamendua tratamenduaren arduradunaren jarraibideekin bat etortzea. c) Tratamenduaz Eragilea den kontratistak eta hirugarrenak DBEOren 28. Artikuluan	y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014, los contratos que impliquen el tratamiento de datos personales de las personas físicas deberán respetar íntegramente el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril, y la Ley Orgánica 3/2018, de Protección de Datos de Carácter Personal y Garantía de Derechos. Cuando la adjudicación implique el acceso de la entidad adjudicataria a datos de carácter personal responsabilidad del Ayuntamiento de Orio, éste tendrá la consideración de Encargado del Tratamiento. En este caso, el acceso a estos datos no se considerará comunicación de datos, de conformidad con lo previsto en el artículo 28 del RGPD. En todo caso, sus previsiones deberán constar por escrito. Una vez finalizada la prestación contractual, los datos de carácter personal deberán ser destruidos o devueltos a la Entidad contratante responsable o a otro Encargado del Tratamiento designado por ésta. El Encargado del Tratamiento conservará los datos debidamente bloqueados cuando de su relación con el organismo responsable del tratamiento puedan derivarse responsabilidades. Asimismo, cuando un tercero trate datos personales por cuenta del contratista, Encargado del Tratamiento, deberán cumplirse las siguientes condiciones: a) Que dicho tratamiento esté determinado en el contrato suscrito entre la entidad contratante y la contratista. b) Que el tratamiento de los datos personales se ajuste a las instrucciones del responsable del tratamiento.

aurreikusitako baldintzekin bat datorren kontratua formalizatzea. Kasu horietan, hirugarrena ere Tratamendu Eragiletzat hartuko da. Gainera, kontratistak, azpikontratistak eta exekuzioari atxikitako langileek honako hau bete beharko dute: 1. Tratamenduaren arduradunaren jarraibideen arabera soilik tratatuko ditu datuak. 2. Datu pertsonalak kontratuaren xedea gauzatzeko baino ez ditu erabiliko. 3. Ez die inolako datu pertsonalik eman edo erraztuko hirugarrenei. Horretarako, kontratistak datu horiek edo haiekin sortutako fitxategiak ez transferitzeko, lagatzeko edo jakinarazteko konpromisoa hartzen du, ez ahoz, ez idatziz, ez bitarteko elektronikoen bidez, ez paperean, ez sarbide informatikoaren bidez, ezta ikusteko ere. 4. Zerbitzua edo jarduera hasi baino lehen, datu pertsonaletara sarbidea duten langile guztien zerrenda bat eman beharko dio kontratuaren arduradunari, eginkizunak eta lana non egingo duten adierazita. Kontratua gauzatzen den bitartean beste pertsona batzuk jardueran parte hartu behar ezkero, beste zerrenda bat erraztuko du, hori gertatzen denetik gehienez ere astebeteko epean. Bai kontratistak, bai zerrenda horietan agertzen diren langile guztiek, formalki eta idatziz, tratatutako datuei buruzko sekretu profesionala gordetzeko konpromisoa hartu beharko dute. 5. Kontratuaren arduradunak, kontrolak egin ahal izango ditu kontratuaren exekuzioan, segurtasun-neurriak betetzen direla egiaztatzeko, eta, hala badagokio, neurri zuzentzaile egokiak hartu ahal izango ditu ere.	c) Formalización por el contratista encargado del tratamiento y por el tercero del contrato en los términos previstos en el artículo 28 del RGPD. En estos casos, el tercero también tendrá la consideración de Tratamiento Operativo. Además, la contratista, subcontratista y el personal adscrito a la ejecución estarán obligados a: 1. Únicamente tratará los datos conforme a las instrucciones del responsable del tratamiento. 2. Los datos de carácter personal sólo podrán ser utilizados para la realización del objeto del contrato. 3. No facilitará a terceros ningún dato de carácter personal. A tal efecto, el contratista se compromete a no transferir, ceder o comunicar dichos datos o los ficheros creados con ellos, ya sea verbalmente, por escrito, por medios electrónicos, en papel, en acceso informático o para su visualización. 4. Antes de iniciar el servicio o actividad, deberá entregar al responsable del contrato una relación de todo el personal con acceso a datos de carácter personal, con indicación de sus funciones y lugar de realización del trabajo. Si durante la ejecución del contrato fuera necesaria la participación de otras personas en la actividad, facilitará una nueva lista en el plazo máximo de una semana desde que se produzca. Tanto la contratista como todo el personal incluido en dichas relaciones deberán comprometerse formalmente y por escrito a guardar secreto profesional sobre los datos tratados. 5. El responsable del contrato podrá realizar controles durante la ejecución del contrato para verificar el cumplimiento de las medidas de seguridad y adoptar, en su caso, las medidas correctoras oportunas.

b) Tratamenduaren Eragilearen betebeharrak. Prestazioaren izaeratik ondorioztatzen bada esleipendunak Orioko Udalaren kontura datuak tratatzeko aukera izango duela, tratamendu eragilearen kontratua gauzatu beharko da nahitaez. Kontratu horretan, adostasuna emango zaie esleipendunak, tratamenduaren arduradun den aldetik, dituen betebeharrei, eta betebehar horien funtsezko izaera deklaratuko da kontratu honen ondorioetarako. Era berean, esleipendunak tratamendu eragilearen kontratuan bertan zehazten den moduan tratatu beharko ditu Orioko Udalaren datu pertsonalak. Orioko Udalak, kontratua gauzatzen den bitartean, egokitzat jotzen dituen egiaztapen guztiak egin ahal izango ditu betebehar horiek betetzen direla egiaztatzeko, hauen ez betetzeak suntsiarazteko arrazoi izaera izanik. Horretarako, Orioko Udalak edozein unetan eskatu ahal izango ditu datuen tratamenduetan arriskuari egokitutako segurtasun-maila bermatzeko ezarritako neurri tekniko eta antolakuntzakoen arrisku analisia. Orobat, neurri horiek dagokion zigilu, ziurtagiri edo estandarraren bidez egiaztatu ahal izango dira. Klausula honetako baldintzak kontratuaren funtsezko betebeharrak dira, Kontratuen Legearen ondorioetarako. Hortaz, baldintzok betetzen ez badira, kontratua bukatu daiteke, lege horren 211.f) artikuluaren arabera.	**b) Obligaciones del Encargado del Tratamiento**. Cuando de la naturaleza de la prestación se deduzca la posibilidad de que el adjudicatario pueda proceder al tratamiento de los datos por cuenta del Ayuntamiento de Orio, será obligatoria la formalización del contrato de tratamiento causante. En dicho contrato se dará el consentimiento a las obligaciones del adjudicatario como encargado del tratamiento y se declarará el carácter esencial de dichas obligaciones a los efectos del presente contrato. Asimismo, el adjudicatario deberá tratar los datos personales del Ayuntamiento de Orio en la forma que se determine en el propio contrato de tratamiento causante. El Ayuntamiento de Orio, durante la ejecución del contrato, podrá realizar cuantas comprobaciones estime oportunas para verificar el cumplimiento de estas obligaciones, constituyendo su incumplimiento causa de resolución. A tal efecto, el Ayuntamiento de Orio podrá solicitar en cualquier momento el análisis de riesgos de las medidas técnicas y organizativas implantadas para garantizar un nivel de seguridad adecuado al riesgo en los tratamientos de datos. Asimismo, dichas medidas podrán acreditarse mediante el correspondiente sello, certificado o estándar. Los requisitos de esta cláusula constituyen obligaciones esenciales del contrato a los efectos de la LCSP, y su incumplimiento puede motivar la resolución del mismo, de conformidad con el artículo 211. f) de la citada ley.
20. SUBROGAZIOA ETA LANGILEAK HAUTATZEA Gaur egun zerbitzua ematen ari diren langileen subrogazioa dela-eta, indarrean dagoen araudia eta lan-hitzarmen kolektiboa	**20. SUBROGACIÓN Y SELECCÓN DEL PERSONAL** En materia de subrogación del personal que actualmente viene prestando el servicio, la empresa que resulte adjudicataria deberá dar cumplimiento a la legislación y al convenio

bete beharko ditu enpresa adjudikaziodunak kontratua betetzerakoan. SPKLren 130. artikuluan jasotakoa betez, Administrazio-klausula Zehatzen Agiri honetako **1 taulan** azaltzen dira gaur egun zerbitzuari atxikita dauden langileen zerrenda, bai eta antzinatasunari eta horretarako aitortutako eskubideei buruzko hainbat datu ere. Plegu hauen idazketa unean aplikatzen den lan hitzarmena Esku Hartze Sozialari Buruzko Gipuzkoako IV Lan Hitzarmen Kolektiboa da. Berriztatzen ez bada edo eta beste berri batengatik ordezkatzen, hitzarmen hau izango da aplikatuko dena. Halaber, subrogatutako pertsonalaren eskarmentua kontuan hartuz, eta betiere zerbitzuan beharra baldin badago, langile berriak kontratatu baino lehen, subrogatutako langileen lanaldia handitzera, edo hala badagokio, lan- harremana berritzera behartuta egongo da enpresa adjudikazioduna. Enpresaren ondorengotzak eragindako langileen lan- harremanak transmisioaren unean enpresan ezartzekoa zen hitzarmen kolektiboaren araberakoak izango dira. Horrez gain, langile berriak kontratatzeko garaian, beren soldata- maila eta lan-baldintzak subrogatutako langileenekin parekatu beharko ditu enpresa adjudikaziodunak. Udalak ez du inolako erantzukizunik izango adjudikaziodunaren eta haren langileen arteko harremanei dagokienez. Udalak ez du inolako harreman juridikorik, lan-harremanik edo bestelakorik izango adjudikaziodunaren langileekin, ez kontratua indarrean dagoen bitartean, ez kontratua	colectivo de aplicación durante la ejecución del contrato. En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 130 de la LCSP, **la tabla 1** del presente Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares se acompaña la relación nominal del personal adscrito al servicio en la actualidad, así como diversos datos sobre la antigüedad y los derechos reconocidos para el mismo. En el momento de la redacción de estos pliegos, el convenio laboral de aplicación es IV Convenio Colectivo de Intervención Social de Gipuzkoa. Mientras no se renueve o sustituya por uno nuevo, será de aplicación este convenio Asimismo, por la experiencia contrastada del personal subrogado, siempre que tenga una demanda en el servicio, la adjudicataria vendrá obligada a ampliar la jornada o en su caso a renovar la relación laboral con aquel personal subrogado antes de proceder a nuevas contrataciones de personal. Las relaciones laborales de las personas trabajadoras afectadas por la sucesión seguirán rigiéndose por el acuerdo de empresa que en el momento de la subrogación fuere de aplicación en la empresa. Además de ello, la adjudicataria se obliga a que en la contratación de nuevo personal se equipararán los niveles salariales y condiciones laborales con respecto a los que disponen las personas trabajadoras subrogadas. El Ayuntamiento queda totalmente exento de responsabilidad sobre las relaciones entre la adjudicataria y su personal. El Ayuntamiento no tendrá ninguna relación jurídica, laboral o de cualquier índole con el

amaitzean, eta adjudikaziodunaren kontura izango dira kontratua dela-eta sortzen diren betebehar, kalte- ordain eta erantzukizun guztiak. Adjudikaziodunak lan-legeriari, Gizarte Segurantzari eta 31/1995 Lege osoari (Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legea) buruzko xedapenak eta lege hori garatzen duten errege- dekretuak bete beharko ditu, bai eta zerga-arloari buruzkoak ere. Udalak ez du inolako erantzukizunik izango gerta daitezkeen ez- betetzeengatik. Langile horiek guztiak soil-soilik enpresa adjudikaziodunaren mende egongo dira, berak dituelako patroi bezala dagozkion eskubide eta betebeharrak. Bestalde, lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienearen arloan indarrean dauden xedapenak beteko ditu, bere kargura dituen langileekin.	personal de la adjudicataria, ni durante la vigencia del contrato ni al término del mismo, siendo por cuenta de la adjudicataria todas las obligaciones, indemnizaciones y responsabilidades que nacieran con ocasión de éste. La adjudicataria deberá cumplir las disposiciones en materia de legislación laboral, de Seguridad Social y de la Ley 31/1995 en su totalidad (Ley de Prevención de Riesgos Laborales) y los Reales Decretos que la desarrollan, así como en materia tributaria, quedando el Ayuntamiento totalmente exonerado de responsabilidad por los incumplimientos que pudieran darse. Todo ese personal dependerá exclusivamente de la parte adjudicataria, por cuanto ésta tendrá todos los derechos y obligaciones inherentes a su cualidad de patrón y deberá cumplir las disposiciones vigentes en materia laboral, de Seguridad Social y de seguridad e higiene en el trabajo, referidas al propio personal a su cargo.
21. ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK Kontratuaren ondorioetarako, enpresa adjudikaziodunaren edozein ekintza edo ez-egite hutsegite zigorgarritzat jotzen da, baldin halakoekin pleguan zehaztutako baldintzak urratzen badira. Zigorrak ezartzeko, espediente arrunta tramitatu beharko da. Udalak edozein bitartekoren bidez hutsegitearen berri duenean hasiko da prozesua. Udal zerbitzu eskudunek gertakariak argitzeko egin beharrekoak egingo dituzte, enpresa adjudikaziodunari entzun ondoren.	**21. FALTAS Y SANCIONES** A efectos contractuales se considera falta sancionable toda acción u omisión de la empresa adjudicataria que suponga un quebranto de las exigencias especificadas en el Pliego. La imposición de las penalizaciones requerirá la instrucción del oportuno expediente ordinario que se iniciará cuando, por cualquier medio, tenga el Ayuntamiento conocimiento de la falta. Se procederá por los servicios municipales competentes a efectuar las diligencias que conlleven el esclarecimiento de los hechos, oída la empresa adjudicataria.

